
Sakelakorako
aplikazio
arrantza tarteak
Arrantza-arauak
2026
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
© J. Ardaiz

87E/2025 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorra, eta ezartzen baitira espezie exotiko inbaditzaileen populazioak kontrolatzeko neurri jakin batzuk, bat etorriz 2026ko arrantza-denboraldirako arrantza-baldintzak ezartzen dituen Ingurumeneko zuzendari nagusiaren otsailaren 25eko 108E/2026 EBAZPENAk sartutako eguneraketekin.

AURKIBIDEA

- Espezie baimenduak 3
- Espezie exotiko inbaditzaileak 3
- Debekuak 4
- Arrantzatzeko baldintza orokorrak 7
- Espezie bakoitzerako berariazko xedapenak 11
  - Izokina 11
  - Itsas amuarraina 11
  - Amuarraina 11
  - Hondoetako korrokoia 13
  - Barboa, tenka, txipa eta zarboa 13
  - Arrain exotikoak 14
  - Paduretako karramarroa eta karramarro seinaleduna 15
- Arrantza-barrutia 17
- Arrantzarako uren zonifikazioa 20
  - Salmonidoen eremua 21
    - Baztan-Bidasoa ibaiaren arroa 22
    - Oria – Urumea ibaiaren arroa 26
    - Arakil – Larraun ibaiaren arroa 28
    - Arga – Ultzama ibaiaren arroa 32
    - Irati – Erro ibaiaren arroa 36
    - Ezka-Zaraitzu ibaiaren arroa 40
    - Ega – Urederra ibaiaren arroa 42
    - Aragoi ibaiaren arroa 46
  - Ziprinidoen eremua 48
- Arrantzarako lizentziak 52
- Basozainak 53
- Interesgarriak diren beste informazio batzuk 56
- Arrantzarako egutegia 57

2025an argitaratu zen liburuxkarekin alderatuta, 2026eko honetan dauden aldaketak hondoa nabarmenduta dutela sartu dira.

Espezie baimenduak

Nafarroan, 2026ko denboraldian, honako arrain-espezie hauen arrantza baimentzen da:

Autoktonoak edo bertakoak

- Amuarraina (*Salmo trutta*)
- Barboa (*Luciobarbus graellsii*)
- Tenka (*Tinca tinca*)
- Txipa (*Phoxinus bigerri*)

Espezie exotiko inbaditzaileak

Harrapatzea baimentzen da, eta jarraian aipatzen diren aleak sakrifikatu eginen dira. Arrain hauek hil behar dira harrapatutakoan:

- Karpa (*Cyprinus carpio*) kus bere atala 19. orrialdean
- Zamo txikiak (*Carassius auratus* eta beste *Carassius* batzuk)
- Perka amerikarra edo black-bass (*Micropterus salmoides*)
- Lutxoa (*Esox lucius*)
- Alburnoa (*Alburnus alburnus*)
- Silurua (*Silurus glanis*)
- Arrain katua (*Ameiurus melas*)
- Ortzadar-amuarraina (*Oncorhynchus mykiss*)

Ornogabe hauek hil beharko dira arrantza gunea utzi baino lehen:

- Paduretako karramarroa (*Procambarus clarkii*)
- CKarramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*)

Ez da baimenik ematen espezie hauek arrantzatzeko

- Gambusia (*Gambusia holbrooki*)
- Eguzki-perka edo eguzki-arraina (*Lepomis gibbosus*)
- Lutxoperka (*Sander lucioperca*)
- Eskardinio begigorria (*Scardinius erythrophthalmus*)
- Perka europearra (*Perca fluviatilis)*

Espezie horietako edozein, nahiz arrantzan ustekabean harrapatuko den beste edozein espezie exotiko ez baimendu ezin izanen da ingurune naturalean askatu, eta debekaturik dago espezie horiek edukitzea, garraiatzea, trafikatzea eta salerostea. Harrapatu eta bertan hil behar dira.

Arrantzarako ur libreak

Arrantzarako libre diren uretan, hots, araubide bereziko ur gisa edo arrantza pribatuko ur gisa sailkatuak ez daudenetan, harrapatu eta askatzeko modalitatea baizik ez dago baimendua espezie autoktono arrantzagarri guztientzat. .

Harrapatu eta eramateko arrantzako urak

Harrapatu eta eramateko arrantzako urak dira tarte eta urmasa jakin batzuk, non harrapatutako arrainak eramaten ahalko baitira harrapatutakoan, baldin eta arrainek eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Arrainak neurtzeko modua

Legezko ondorioetarako, buruaren aitzineko muturretik isatshegats edo buztan irekiaren gibelaldearen erdiko punturainoko luzera izanen da arrainen luzera.



Debekuak

Espezieak sartzea

Debekatuta dago Nafarroako ibaietan eta ur-masetan edozein espezie sartzea.

Arrabatzeko tokien eta arrainkumeak sortzeko eremuen babesa

Ez dago baimenduta ibilguak gurutzatu edo igarotzea, ezta barrutik arrantza egitea ere, "errute tokiak" direla seinalatuta dagoen guneetan.

Beita, tresna eta prozedura debekatuak

- Mota guztietako sareak, eta selektiboak ez diren gainerako aparailu guztiak.
- Arrantza errazteko asmoz, harri, egur edo bestelako materialez eginiko oztopo edo hesiak paratzea dakarren edozein prozedura edo ibilguak nahiz emariak aldatzea.
- Tresna elektrokutatzaile edo motelarazleak, argi-iturri artifizialak, lehergailuak eta arrastoa utzi, pozoitu, moteldu, lasaitu, erakarri edo uxatzeko substantziak.
- Atzaparrak, burdina-kakoak, hiruhortzak, karakoteak, karpinak, arpoiak, arrain-tranpak, baheak, pertolak, esparbelak, esku-sareak, tretzak, salabardoak, kordelak, egoneko amuhariak eta gisako arrantza-tresnak.
- Esku-arrantza eta urpekoa.
- Atxamarta bat baino gehiago edo hiru amu arrunt baino gehiago dituzten aparailuak erabiltzea, arrain artifiziala izan ezik, hori ziprinidoen eremuan erabil baitaiteke atxamarta batekin baino gehiagorekin.
- Ninfa edo eulia "har" edo "puruarekin" erabiltzea, edo buia edo buldo beruneztatuak edo zamatuak, hondoratzea dakarren edozein materialekin, jaurti eta hondoratu ondoren azalera itzultzea eragozten dela.
- Arrain bizia edo hila beitarako erabiltzea, edozein ale, zati edo eratorri barne. Karramarro aloktonoak arrantzatzeko soilik erabil daitezke merkaturatutako arrain-zatiak.
- Ibaia beitaz ereitea arrantzatu aitzin edo arrantzatu bitartean, beita gisa ilean (hair) ez dauden boilieen erabilera barne. Entrenamendu fasean dauden arrantzaleei baizik ez zaie baimenik emanen ziprinidoen eremuko eta Itoizko urtegiko tarteetan ibaia beitaz ereiteko, Nafarroako Arrantza Federazioan federatuta daudela egiaztatzen badute. Arrantzatzea debekatuta dagoen espezieen kasuan, garraioa baimenduta dago arrainak desagerrarazteko soilik.e.
- Clonk-a edo ur-jotzailea erabiltzea silurua arrantzatzeko, bai eta arrantzaren beste arte eta osagarri batzuk ere, espezie exotikoen edo inbaditzaileen berariazkoak badira.
- Tokiko faunarenak ez diren espezieen larbak, pupak, ninfak edo banakoak erabiltzea arrantzatzeko.
- Debekatuta dago pisuan % 1eko berun-kontzentrazioa (metaletan adierazia) edo handiagoa duten aparailuak erabiltzea.
- Salmonidoen eremuan honako hauek debekatuta daude:

- Atxamartak eta garrangadun amuak erabiltzea, salbu eta amuarrainen barruti intentsiboetan, harrapatu eta eramateko tarteetan.
- Gazta, gantz solidoak, haragi-oreak, arrabak edo "haragiharra" edo "asticot" izenekoa erabiltzea arrantzatzeko.

Arrainak eduki, garraiatu eta merkaturatu

Nafarroan arrantzarako debekualdiak dirauen bitartean, ez da zilegi izanen debekuan diren espezieak eduki, garraiatu, merkaturatu eta jatea, legez arrantzatua dela frogatzen duen dokumentazioa ez baldin badute aldean.
Debekatua dago espezie guztietako arrainak merkaturatzea.
Zilegi da foru-agindu honen arabera arrantzatzen ahal diren espezie exotiko inbaditzaileen aleak eduki eta garraiatzea, betiere arrainak hilik badaude eta desagerrarazteko toki egoki batean uzteko asmoz edo autokontsumorako harrapatzen badira.

Presetatik hurbil arrantzatzea

Gutxienez distantzia hauek utzi behar dira arrantzalearen edo bere beitaren eta presen oinarriaren edo arrainentzako eskalen edo pasaguneen sarreraren edo irteeraren artean.

- Izokin-ibai ez diren salmonidoen ibaietan eta ziprinidoen ibaietan:
  - Arrainentzako pasabidea duen presa: 10 metro.
  - Arrainentzako pasabiderik gabeko presa: 50 metro.

Presak hauek dira: oztopo artifizialak, ibilguarekiko zeharka daudenak, 1 metrotik gorako altuera dutenak beren koroatik presaren behealdeko ur-geruzaraino.

Ikerketetan markatutako arrainak

Harrapatutako edozein arrain markatua badago Basozainak komunikatzeko beharra dago, baita identifikatzeko ikurra edo marka ematea ere.

Izokin-tartea Bidasoa ibaian

2026an Izokin tartean arrantza egitea debekatuta egongo da. Izokin atlantikoaren eta Itsas-amuarrainaren populazio-egoerak espezie horien arrantzaren geldialdi biologikoa egitera behartzen du, eta, horrela, populazioak azkarrago berreskuratzea ahalbidetzen du.

Arrantzarako baldintza orokorrak

Arrantzarako lizentziak

Baimendutako edozein espezie arrantzatzeko, nahiz baime horren barnean dauden espezie exotiko inbaditzaileak arrantzatzeko, Nafarroako arrantzako lizentzia eduki behar da.

Ez dute arrantza-lizentziarik beharko arrantza egiteko 13 urte bete ez dituztenek, baina beti lagundu beharko die arrantza-lizentzia duen adin nagusiko norbaitek.

Arrantzarako lizentzia lortzea

Arrantzarako lizentziak (12 €) hemen daude eskuragarri:

- Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentua. Iruñea: Gonzalez Tablas karrika 9, 31005. Tel.: 848 420 221
- Arloko bulegoetan (ikus 55. orrialdea).
- Herritarrei arreta egiteko bulegoa.
  Tutera: Foruen plaza, 5 eta 6.
- Telematikoki tramitatzeko, helbide honetan: https://administracionelectronica.navarra.es/CazaPesca

Arrantzarako baimenak

Salmonidoen goiko eremuan baimendutako espezie oro arrantzatzeko (arrantza naturaleko barrutietan, dagokion barrutiaren pasea behar da) eta ziprinidoen eremuko guneetan arrantza egiteko, eguneko baimen berezi bat eduki behar da Nafarroako arrantza-lizentziaz gain. Baimen hori norberarena da eta ezin izanen du beste inork erabili, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emanen du Internet bidez (https://www.navarra.es/eu/ingurumena/arrantza-egitea) edo telefonoz

Salmonidoen goiko eremurako baimenak

Bi baimen izanen dira: arraina harrapatu eta eramatekoa, edo arraina harrapatu eta askatzekoa. Arraina harrapatu eta askatzeko modalitateko baimena eskatuz gero, modu horretan baizik ezin izanen da aritu arrantzan, bai arraina harrapatu eta askatzeko tarteetan, bai arrantzarako debekaturik ez dauden gainerako tarteetan. Arraina harrapatu eta eramateko arrantzaren kasuak, ezin izanen du arrantzarik egin arraina harrapatu eta askatzeko ezarritako tarteetan.

16 urtetik beherakoek ez dute baimen hori beharko arrantzan egiteko arro guztietan, herrigunearen barreneko ibai tarteetan, salmonidoen goiko eremurako arrantza-denboraldian eta arraina harrapatu eta askatzeko arrantza-motan soilik. Arrantzarako tarte debekatuak dituzten arro irekietan, debeku hori errespetatu beharko da aipatu tarte horietan.

Eskura daitezkeen baimenak

- Arrantzale eta denboraldiko baimen-kopurua: 20 baimen, zeinak harrapatu eta askatzeko modalitaterako baino ez baitira eskainiko.
- Baimenak erreserbatzeko hasiera-data (kopuruen arabera):
  - Baimen bat apirilaren 13tik aurrera.
  - Baimen bat gehiago apirilaren 20tik aurrera.
  - Baimen batgehiago apirilaren 27tik aurrera.
  - Bi baimen gehiago maiatzaren 4tik aurrera.
  - Bost baimen gehiago maiatzaren 6tik aurrera.
  - Hamar baimen gehiago maiatzaren 11tik aurrera.

Baimenen liberazioa dagokion eguneko goizeko 8:00etan hasiko da.

Izokin-tarterako baimenak

2025ko denboraldian Izokin tartean arrantza egitea debekatuta egongo da.

Ziprinidoen Eremuko arrantzarako kirol guneetarako baimenak

Ziprinidoen eremuko arrantza-guneet an arrantza egiteko, beharrezkoa da eguneko baimen pertsonala izatea.

Arrantzaleko eta urteko ematen diren baimenek ez dute mugarik izanen urteko. Erabili aurretik gorde daitekeen baimen kopurua, gehienez, 5ekoa izanen da.

Baimenaren titularraz edo titularrez gain (postua partekatuz gero), postu bakoitzean beste norbaitek arrantzatzen ahalko du baldin eta egun horretarako eta gune horretarako baimena erreserbatua badu eta baimenen titularrak han badaude eta ados badaude.

Gune eta egun jakin baterako baimena duen pertsona batek erreserbatutakoa ez den beste postu batzuk erabiltzen ahalko ditu, baldin eta postu horiek erabiltzen ari ez badira.

Baimenak tramitatzea

Telefono bidezko arreta - 012 InfoNavarra

- 948 012 012. Dohainik tasa planarekin, bestela, tokiko deialdiaren prezioaz.
- 012. 0,34 euroko deialdiaren prezioaz.
- Ordutegia (bi zenbakientzako): astelehenetik ostiralera: 8,00tik 19,00etara (uztailaren 1etik abuztuaren 15era 8:00tik 15:0 0etara). Operadoreak zure nortasun agiriaren zenbakia eta arrantzarako lizentziaren zenbakia eskatuko dizkizu.

Internet

Honen bit artez: **www.pesca.navarra.es**
Egunero eta edozein ordutan erabilgarri.

Arrantzarako ordutegia

- Martxoan eta apirilean, 7:00etatik 21:00etara.
- Maiatzean, ekainean eta uztailean: 6:30etatik 22:30era.
- Abuztuan, 7:00etatik 22:00etara.
- Irailean eta urrian, 7:00etatik 21:00etara.
- Urteko gainerako egunetan, eguzkia atera baino ordu bat lehenago has daiteke arrantzan, eguzkia sartu eta ordubete pasatu arte (betiere, ordu ofizialaren arabera, 06:00etatik 24:00ak bitarte).
- Entrenamendu fasean dauden arrantzaleei baizik ez zaie baimenik emanen ziprinidoen eremuko arrantzarako kirol guneetan adierazitako ordutegitik kanpo arrantzatzeko, Nafarroako Arrantza Federazioan federatuta daudela egiaztatzen badute.

Arrantzako kirol-lehiaketak

Kirol-lehiaketetako arrantza eta federatutako arrantzaleen entrenamenduak foru agindu honetan xedatutakoari jarraikiz eginen dira, eta berezitasun hauekin:

-- Parte-hartzaileek beste kanabera batzuk izaten ahal dituzte muntaturik, unean-unean erabiltzen ari direnaz gain.
– Beita botatzea baimenduta dago.
– Carp Fishing modalitatean, lehiaketa horrek bere ordutegia izanen du.
– Barboak, tenkak eta karpak harrapatzen ahalko dira neurririk eta kuporik gabe, eta uretara itzuliko dira lehiaketa edo entrenamendu-fasea amaitzean; horretarako, sare-saskiak edo vivariumak erabiltzen ahalko dira.

- Arrantzako kirol lehiaketak egiten diren egunetan, lehiaketatik kanpoko arrantzaleek ezin izanen dute arrantzarik egin tarte horretan. Lehiaketen egutegia departamentuaren webgunean argitaratuko da:
  https://www.navarra.es/eu/ingurumena/arrantza-egitea
- Espezie exotiko inbaditzaileak hiltzeari dagokionez, arrantzadebekuei buruzko xedapen orokor honetan xedatutakoa aplikatuko da kirol probaren bukaeran.

Arrantzan ikasteko eskola

Nafarroako Arrantza Federazioak, arrantzaleen elkarteek, tokiko-entitateek edo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak sustatzen dituzten hezkuntza jardueretarako baizik ez da erabiliko, arraina harrapatu eta aska-tzeko arrantza mota eginez, betiere Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren baimena badute.

Arraina harrapatu eta askatzeko arrantzarako baldintzak

- Sare ez-metalikoa duen salabardo erabili beharko da nahitaez, eta gomendatzen da sare horrek korapilorik ez izatea eta harrapatutako arrainak, ahal dela, uretan bertan maneiatzea, haiei kalte ez egiteko.

- Harrapatutako arrain guztiak berehalaxe itzuli behar dira uretara. Harrapatzean hiltzen direnak ere uretara botako dira. Bizirik dauden arrainak bizirik irauteko berme osoz itzuliko dira. espezie exotiko inbaditzaileetako arrain guztiak hil egin behar dira nahitaez, baita ortzadar amuarrainak eta urrearraina ere. Ziprinikoen eremuan arrantzale bakoitzaren aukeran geratzen da
- Arrantza libreko uretan, arrantzaleak ezin izanen du arrainik garraiatu, ezta harrapatu eta eramateko tarteetan arrantzaturikoak ere.
- Salmonidoen eremuan apeu artifizialak erabiliz bakarrik egiten ahalko da arrantzan, gehienez ere hiru apeu artifizial erabiliz aparailu bakoitzean, eta haietako bakoitzean amu soil bakarra, garranga gabea. Arrantza-koilaran, arrain artifizialetan, biniloetan eta abarretan, amu arrunt bakar bat jartzen ahalko da, garranga gabea.

Ontzitik arrantzatzea

Baimenduta dago ontzitik arrantza egitea; arrantza-modalitate horri arrantzarako araudi orokor osoa ezarriko zaio. Nolanahi ere, Nafarroako ur kontinental nabigagarrietan baizik ezin da egin arrantza mota hori, ibai-arroaren ardura duen erakundeak ezarritako arau eta baldintzei jarraikiz.

Zilegi da bainuaren osagarriak diren flotazio bitarteko edo tresnekin (ahateak edo katamaran-ahatea) arrantzan egitea ur jabari publikoaren eremuetan, haietan bainatzea debekatuta ez badago.

Oro har arrantzarako debekua duten tokiez gain, ez da zilegi ontzitik arrantzan egitea, ez eta bainuaren osagarriak diren flotazio bitartekoekin ere (ahateak edo katamaran-ahatea) toki hauetan:

- Ebro ibaia: Soto de las Norias natura-lekunearen (EN-11) goiko mugatik eta uretan behera Soto de la Mejana natura-lekunearen (Soto de Traslapuente natura-lekunea barne) beheko mugara arteko ibai tartean. Debekatuta dago martxoaren 1etik uztailaren 31era arte.
- Corellako Estanca.
- Pulguerko idoia, Tutera.
- Cardeteko urmaela, Tutera.
- Valdelafuenteko idoia, Tutera.
- Las Estanquillas idoia, Cintruenigo.
- Cintruenigoko Estanca.
- Arradako urmaela.
- Allozko urtegia: ertzetik 50 metrotik behera dauden tarteetan, Lerateko, Hiriberri Deierriko eta Ugarko bainu-eremuetan. Debekatuta dago ekainaren 1etik irailaren 30era arte.

Berariazko xedapenak espezie bakoitzarentzat

Izokina

- Espeziea debekatuta egongo da 2026 denboraldian.

Itsas amuarraina

- Espeziea debekatuta egongo da 2026 denboraldian.

Amuarraina

- Zonifikazioa: Nafarroan Amuarrainak arrantza daitezke salmonidoen goiko eremuko uretan (izokin-tartean izan ezik) eta salmonidoen eremu mistoan.

Salmonidoen goiko eremua

- Salmonidoen goiko eremuan baimendutako edozein espezie harrapatzeko, Nafarroako arrantzarako lizentziaz gain, beharrezkoa da eguneko baimen berezia izatea, pertsonalaeta besterenezina, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emana, Internetez edo telefonoz (ikus 7. orrialdea). Arrantza naturaleko barrutietan, baimenaren ordez, arrantza-barrutiak ematen duen pasea eduki beharko da.
- 16 urtetik beherakoek ez dute baimen hori beharko arrantzan egiteko arro guztietan, herrigunearen barreneko ibai tarteetan, salmonidoen goiko eremurako arrantza-denboraldian eta arraina harrapatu eta askatzeko arrantza-motan soilik.
- Arrantzaleak arrantza egunetan lortzen dituen arrainen berri eman beharko dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, dela Interneteko inkestak betez, dela behar bezala betetako baimenak postaz itzuliz.
- Zonifikazioa: zilegi da salmonidoen goiko eremuko arro eta barruti hauetan arrantzatzea; gainerako arroetan debekatua egonen da:

- Baztan-Bidasoa	- Ega-Urederra	- Arga-Ultzama
- Oria-Urumea	- Arakil-Larraun	- Irati-Erro

- Arrantza-denboraldia: maiatzaren 1etik ekainaren 30era. Arrantza-denboraldia uztailaren 15era arte luzatzen ahal da, baldin eta denboraldian arrantzatzeko baldintza desegokiak izan badira eta uztailaren erdialderako aurreikusten diren emariak eta tenperaturak bereziki kontrakoak ez badira arrainen populazioetarako. Luzatuz gero, arrantzaren webgunearen bidez jakinaraziko da (www.pesca.navarra.es)

- **Arrantza-egunak** asteko egun guztiak.
- **Arrantza-egunak**: Neurria eta kupo: ez da bidezkoa.
- **Tresnak**: kanabera baizik ez da onartuko, eta bat bakarra arrantzalearen eskura; ordezko bat eraman daiteke, aparailua muntatuta duela
- **Amuak eta aparailuak:** Salmonidoen goiko eremuan ez da zilegi inolako garrangadun amurik erabiltzea. Apeu artifizialekin soilik arrantzatzen ahalko da, aparailu bakoitzeko gehienez ere hiru apeu artifizial erabiliz, eta horietako bakoitzean amu bakun bat. Arrantza-koilaran, arrain artifizialetan, biniloetan eta abarretan, amu bakun bakar bat jartzen ahalko da.

  Arrantzan aritu bitartean, ezin izanen da garrangadun amurik edo atxamartarik eraman.

  Debekatuta dago ninfa edo eulia erabiltzea harren kutxatilarekin edo puruarekin, baita buia edo buldo beruneztatuak erabiltzea ere, eta halaber hondoratzea eragiten duen edozein materialekin zamatuak daudenak, baldin eta jaurti eta hondoratu ondoren uraren gainazalera itzultzea eragozten badute.

Salmonidoen eremu mistoa

- Arrantzaleak arrantza egunetan lortzen dituen arrainen berri eman ahal izanen du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, dela web-orrian dituen inkestak betez (www.pesca.navarra.es), dela paper-euskarrian Departamentuaren bulegoetan (Gonzalez Tablas karrika 9, Iruñea).
- **Arrantza-denboraldia**:

- Oro har, apirilaren 1tik irailaren 30era arte. Harrapatu eta eramateko arrantza, soilik harrapatu eta eramateko tarteetan, uztailaren 31ra arte.
- Salmonidoen eremu mistoan mugatu gabe dauden tarte guztietan, abuztuaren 1etik irailaren 30era bitartean, harrapatu eta askatzeko modalitatean arrantzatzen ahalko da soilik.
- Amuarrainen arrantza intentsiboko barrutiak, gehienez martxoaren 14etik azaroaren 15era.

- **Arrantza-egunak**: asteko egun guztiak.
- **Neurria eta kupo**: ez da bidezkoa.
- **Tresnak**: kanabera baizik ez da onartuko, eta bat bakarra arrantzalearen eskura; ordezko bat eraman daiteke, aparailua muntatuta duela.
- **Amuak eta aparailuak**: Salmonidoen goiko eremuan ez da zilegi inolako garrangadun amurik erabiltzea. Apeu artifizialekin soilik arrantzatzen ahalko da, aparailu bakoitzeko gehienez ere hiru apeu artifizial erabiliz, eta horietako bakoitzean amu bakun bat. Arrantza-koilaran, arrain artifizialetan, biniloetan eta abarretan, amu bakun bakar bat jartzen ahalko da.
- Debekatuta dago ninfa edo eulia erabiltzea harren kutxatilarekin edo puruarekin, baita buia edo buldo beruneztatuak erabiltzea ere, eta halaber hondoratzea eragiten duen edozein materialekin zamatuak daudenak, baldin eta jaurti eta hondoratu ondoren uraren gainazalera itzultzea eragozten badute.
- Arrantzan aritu bitartean, ezin izanen da garrangadun amurik edo atxamartarik eraman.

Harrapatu eta eramateko arrantzarako tarteak

- **Neurriak**: 20 zentimetro gutxienez eta 35 zentimetro gehienez. Arrantza intentsiboko barrutietan, ikusi dagokion atala.
- **Kupoa**: 2 amuarrain, arrantzale eta eguneko. Egun horretan harrapatu eta eramateko kupoa bete duen arrantzaleak ezin izanen du jarraitu beste modalitate batean arrantzatzen.
- **Amuak eta aparailuak**: oro har, apeu artifizialekin bakarrik arrantzatzen ahalko da, aparailu bakoitzeko gehienez ere hiru apeu artifizial erabiliz, bakoitzak amu bakun bat duela. Arrantza-koilaran, arrain artifizialetan, biniloetan eta abarretan, amu bakun bakar bat jartzen ahalko da.
- Arrantzan aritu bitartean, ezin izanen da garrangadun amurik edo atxamartarik eraman.
- Eremu horretako arrantza barrutietan, amuarrainaren arrantza egiteko, hari dagokion Arrantza Kudeatzeko Plan Teknikoari jarraituko zaio (kus bere atala 17. orrialdean).

Ziprinidoen eremuan

Arrantzan egitea baimentzen da, eremu horretarako muga orokorrak kontuan hartuta.

Korrokoia eta platuxa

- Espezieak debekatuta egingo dira 2026ko denboraldian.

Barboa, tenka eta txipa

- Zonifikazioa eta arrantza-denboraldia:
  - Ziprinidoen eremuan, espezie horiek urte osoan arrantzatzen ahal dira.
  - Salmonidoen eremuan, amuarrainaren arrantzarako denboraldi berean harrapatzen ahalko dira.
- **Neurria eta kupo**: ez da bidezkoa.
- **Tresnak**: arrantzale bakoitzak bi kanabera izaten ahalko ditu eskura, gehienez ere, ziprinidoen eremuko ur eta ibaietan. Salmonidoen eremuan bat bakarra izaten ahalko da arrantzalearen eskura; ordezko bat eraman daiteke, baina aparailurik gabe.

Arrain exotikoen arrantza

Karpa txikien eta arrain exotiko inbaditzaileen arrantza: karpa, perka amerikarra edo black-bass izenekoa, lutxoa, alburnoa, silurua, arrain katua eta ortzadar-amuarraina.

- **Zonifikazioa:** ziprinidoen eremuan bakarrik da zilegi arrantza. Gainera, perka amerikarra edo black-bass delakoa Itoizko urtegian arrantzatzen ahalko da, urtegi horretan amuarraina arrantzatzeko baimendutako data eta baldintza berberetan. Zonifikazio horrek abenduaren 13ko 42/2007 Legea indarrean jarri aurretik espezie exotiko inbaditzaile horiek zuten banaketa jasotzen du, 64.ter.artikuluaren 1 eta 2 zenbakietan xedatutakoaren arabera.
- **Arrantza-denboraldia:** espezie horiek urte osoan arrantza daitezke.
- **Neurriak eta kupoa**: ez da mugarik ezartzen.
- **Tresnak**: arrantzale bakoitzak bi kanabera izaten ahalko ditu eskura, gehienez ere.
- **Hiltzea eta garraiatzea:** arrantzatutako aleak, harrapatu eta une horretan bertan hil beharko dira. Halaber, edukitzea eta garraiatzea baimentzen da, arrainak hilda badaude, betiereautokontsumorako edo desagerrarazteko toki batean uzteko badira. Salmonidoen eremuan arrantzatutako aleak nahitaez sakrifikatu beharko dira; Ziprinikoen eremuan arrantzalebakoitzaren aukeran geratzen da (harrapatutakoan hil edo itzuli beharko dira, eta ezin izanen dira bizirik eduki).
- Ziprinidoen eremuan dauden arrantzarako kirol guneetan, egun osoan arrantzatzeko (gaueko ordutegia barne), entrenamendu fasean dauden arrantzaleei baimena emanen zaie aldi baterako aterpeak jartzeko (bivvy-ak), Nafarroako Arrantza Federazioan federatuak daudela egiaztatzen badute.

Paduretako karramarroa eta karramarro seinaleduna

- **Zonifikazioa**: zilegi da karramarroa harrapatzea ondoko ibai eta tarte hauetan:
  - **Ebro ibaia**: ibilgu nagusian, eta Lodosatik Arnedorako errepide nazionaleko zubitik behera ura Ebron isurtzen duten ibai adarretan; eta ibai horrek zeharkatzen dituen udalerri guztietako ureztatzeko erreten eta ubideetan.

  - **Ega ibaia**: ibilgu guztian eta adarretan, Alloko zentraletik Ebro ibaiarekin bat egin arte, ureztalurretako erreten eta ubideak barne direla.
  - **Arga ibaia**: ibilgu guztian eta adar guztietan, Larragako zubitik Aragoi ibaiarekin bat egin arte, ureztatzeko erretenak, ubideak eta uberkak barne direla.
  - **Zidakos ibaia**: ibilgu guztian eta eskuinaldeko adarretan, ureztatzeko ubide eta erretenak barne, Puiuko eta Tafallako mugatik Aragoi ibaiarekin bat egin arte.
  - **Aragón ibaia**: ibilgu guztian eta ibaian behera ezkerraldeko adarretan, Galipentzuko Arribako presatik Zarrakazteluko mugaraino, eta ur guztietan, Galipentzu eta Zarrakaztelu arteko mugatik Ebro ibaiarekin bat egin arte, ureztalurretako erreten eta ubideak barne direla.

Barnean gelditzen da idoi, aintzira eta urtegietan egiten den arrantza, hura zilegi den ibai tarte edo adarren arroetan, hurrengo aintzira eta idoietan izan ezik:

- Salobreko edo Las Cañasko urtegia (RN-20).
- Juncaleko aintzira (RN-23).
- Pitillasko aintzira (RN-27).
- Agua Saladako idoia (RN-34).
- Pulguerko urmaela (RN-35).
- Dos Reinosko aintzira (EN-13).
- Valdelafuenteko idoia.
- Cardeteko idoia (ez da zilegi arrantzan egitea idoiaren mendebaldean).
- Nafarroako Ubidea, baita ubidearen erregulazio idoi guztiak ere.

Era berean, espezie horien arrantza baimentzen da karramarro exotikoen kontrol-tarte guztietan, kontrol-tarte bakoitzean ezarritako mugekin.

Ur horietatik kanpora, debekatuta dago karramarroa harrapatzea.

- **Harrapaketarako denboraldia, kopurua eta neurriak**: karramarroa urte osoan harrapatu ahal izanen da kopuru eta neurri mugarik gabe, Karramarro exotikoen kontrol-tartea salbu; horietan denboraldia ekainaren 15etik urriaren 15era bitartekoa izanen da.

- **Ordutegia, hilabetearen arabera**:
  - Martxoan eta apirilean: 07:00etatik 21:30era.
  - Maiatzean, ekainean eta uztailean: 06:30etik 22:00etara.
  - Abuztuan, irailean eta urrian: 7:00etatik 21:30era.Urteko gainerako egunetan, eguzkia atera baino ordu bat lehenago has daiteke, eta sartu ondotik ordu bat pasatzen denean utzi beharko da.
- **Hiltzea**: harrapatutako karramarroak ez dira uretara itzuliko, eta arrantza-tartea utzi aurretik hil beharko dira. Edukitzea eta garraiatzea baimentzen da, karramarroak hilda badaude, betiere autokontsumorako edo desagerrarazteko toki batean uzteko badira.
- **Tresnak**: karramarroa salabardoz baizik ezin da harrapatu. Arrantzale bakoitzak gehienez ere bost salabardo erabil ditzake. Salabardo bakoitzean etiketa jarriko da, eta, bertan, arrantzalearen izena, bi deitura eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia.

Karramarro exotikoak harrapatzeko zonifikazioa



Arrantza-barrutiak eta Karramarro exotikoen kontrol-tarteak

Paseak

- Ehiza-barruti edo kontrol-tarte batean arrantzatzeko, beharrezkoa da, arrantzarako lizentziaz gain, dagokion ehiza-barrutia edo kontrol-tartea administratzen duen arrantzale-sozietateak emandako baimen pertsonala izatea.

Paseak forma deferenteetatik lor daitezke:

- **Presentziala**
  - Barrutiak kudeatzen dituzten erakundeen lokalak
  - Erakunde bakoitzari lotutako ohiko salmenta-puntuan
- **Interneten**
  -- Sailaren webgunearen bidez: www.pesca.navarra.es

Araudia

- Pasea internetetik lortuz gero, paperean eraman behar da pase hori, bete ahal izateko.
- Pase baten erabiltzailea behartuta dago kontrol-barruti edo -tarteko postontzi batean gordetzera, fitxako datu guztiak, idatzi ondoren. Pasea internetetik lortuz gero, beharrezkoa da pase hori paperean eramatea, datuak bete ahal izateko.
- Ezarritako aparkalekuak nahitaez erabili beharko dituzte barrutietako eta kontrol-tarteetako arrantzaleek.

Tasak

Amuarraina: Arrantza barruti naturala eta intentsiboko barrutia.

- Arraina harrapatu eta eramatekoa: 12€
- Arraina harrapatu eta askatzekoa 10€

- Karramarro exotikoak modu kontrolatuan harrapatu eta eramateko tarteak 10€
- Tasa murriztua: 8€

Barrutietako elkarte administratzailek, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurretiazko baimenarekin, arrantzale federatuei, 65 urtez goitikoei, 16 urtez beheitikoei eta ongintzako elkarteek antolatutako jardueretan parte hartzen duten beste pertsona talde ba-tzuei tasa murriztua aplika diezaiekete, arrantza gizartean zabaltzeko asmoz.

Eguneko baimenarekin amuarrain harrapaketako eta askeko barrutietan barruti guztian arrantzatu daiteke (nahiz harrapatu eta askatu ataletan edo erauzte ataletan) baina aukeratutako modalitatea beti errespetatuz.

Barrutiaren barreneko edo barrutiarekin muga duten udalerri edo kontzejuetako herritarrak hartuko dira bertakotzat, baita ibaiko izokin-tartean dauden sozietate federatuetako kideak ere.

Amuarrainen barrutietan, harrapatzeko eta askatzeko eguneroko baimen batekin barruti osoan arrantzatzen ahalko da (bai harrapatu eta askatzeko tarteetan, bai harrapatu eta eramateko tarteetan), betiere aukeratutako modalitatea errespetatuz.

16 urtetik beherakoek barrutietan arrantzatzen ahalko dute pasearen zenbatekoa ordaindu gabe, baldin eta kasuan kasuko pasea daukan adin nagusiko norbaitekin badoaz. Harrapatu eta eramateko tarteetan, amuarrainen barrutietan, biek batera gehienez ere 5 amuarrain arrantzatzen ahalko dituzte.

Amuarrainen arrantza-barrutiak: harrapaketarako denboraldia, kopurua eta neurriak

Amuarrainen arrantza barrutia naturalak

- Arrantza-denboraldia: maiatzaren 1etik ekainaren 30era, jai ez diren astearteetan izan ezik.
- Neurria eta kupo: ez da bidezkoa.

Amuarrainen arrantza intentsiboko barrutiak

- Arrantza-denboraldia: martxoaren 14etik azaroaren 15era. Debekatuta dago jai ez diren astearteetan arrantzan aritzea.

- Harrapatu eta eramateko arrantzarako tarteak
  - Kupo: gehienez 5 amuarrain arrantzale eta eguneko.
  - Neurria: 20 cm gutxienez eta 35 cm gehienez. Esako eta Arintzanoko arrantza intentsiborako barrutian, 55 cm gorako aleak harrapa daitezke.
  - Baimentzen da garrangadun amua edo atxamarta erabiliz arrantzatzea.

Karramarro exotikoen kontrol-tarteak: tresnak, denboraldia eta orduak

- Espeziea: karramarro seinaleduna eta paduretako karramarroa.
- Tresnak: arrantzale bakoitzak gehienez 5 salabardo, guztiak izen eta bi abizenekin eta NAN edo baliokidearekin identifikatuta.
- Arrantzale bakoitzak gehienez 50 m-ko tartea hartu ahal izanen du bere salabardoentzat, eta beste arrantzale baten salabardoekiko gutxienez 25 m-ko tartea utziko du.

- Kupo: ez dago gehieneko mugarik eguneko eta arrantzaleko.
- Neurria: ez da finkatu harrapatutakoaren gutxieneko neurririk.
- Arrantza-denboraldia: ekainaren 15etik urriaren 15era, asteko egun guztiak, jaiegun ez diren astearteak izan ezik.
- Ordutegia: 16:00etatik 21:00etara.

Barrutietarako eta kontrol-tarteetarako paseak egitea

Kasuan kasuko barrutiak eta tarteak administratzeko adjudikazioa duten arrantzale-elkarteek emanen dituzte arrantza-barrutietako eta karramarro exotikoak kontrolatzeko tarteetako baimenak, ohiko salmenta-bideen bidez eta Internet bidez(https://www.navarra.es/eu/ingurumena/arrantza-egitea).

- **Lizarrako Kirol Ehiztarien eta Arrantzaleen Elkartea**
  La Corte karrika 17-19. 31200 Estella-Lizarra.
  Tel. 948 550 779
  - Zudairiko arrantza barruti naturala, Urederra ibaian.
  - Ega ibaiko karramarro exotikoen kontrol-zatia, Ega ibaian.
  - Arintzanoko arrantza intentsiborako barrutia, Ega ibaian.


- **Iruñeko Kirol Ehiztarien eta Arrantzaleen Elkartea**
  Estafeta karrika 33 - 1. eskuin. 31001 Iruñea.
  Tel. 948 227 711
  - Esako arrantza intentsiborako barrutia, Aragoi ibaian.
  - Asiaingo karramarro exotikoen kontrol-zatia, Arakil ibaian.
  - Esako karramarro exotikoen kontrol-zatia, Aragoi ibaian.

- **Arga ibaiko Kirol Arrantzaleen Kluba**
  Labayen doktorearen karrika, 16 etxabea. 31012 Iruñea.
  Tel. 948 196 261
  - Eugiko arrantza barruti naturala, Arga ibaian.
  - Uharteko arrantza intentsiborako barrutia, Arga ibaian.
  - Uharteko karramarro exotikoen kontrol-zatia, Arga ibaian
  - Soraurengo karramarro exotikoen kontrol-zatia, Ultzama ibaian.

Arrantzarako uren zonifikazioa



Arrantzarako arroak salmonidoen goiko eremuan



Ibaiak eta Arroak

Baztan-Bidasoa arroa

Oria-Urumea arroa

Arakil-Larraun arroa

Arga-Ultzama arroa

Irati-Erro arroa

Ezka-Zaraitzu arroa

Ega-Urederra arroa

Aragoi ibaiaren arroa

• **Ziprinidoen eremua** •

Salmonidoen goiko eremua

Ibilgu nagusia

- **Baztan-Bidasoa ibaia**: Arizkunen Aranea errekarekin bat egiten duenetik Berako Fundizioen presaraino.


Bigarren mailako ibilgua

- **Baztan-Bidasoa ibaia**: Izpegin sortzen denetik, Arizkunen Aranea Errekarekin bat egiten dueneraino, eta erreka eta ibaiadar guztiak.
- **Aritzakun-Urritzate ibaia**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Orabidea ibaia (Ugarana)**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Zorribenta erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Biureta erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.

Araubide bereziko urak

Aldi baterako debekuko tarteak

- **Bidasoa ibaia, Izokin-tartea**: Berako Fundizioen presatik Nafarroak Endarlatsan duen mugarainoko tartea.
- **Baztan-Bidasoa ibaia**: Giltxaurdiko zubitik Opokako presaraino, Elizondon.
- **Bidasoa ibaia. Banaketa-ubideak**: debekatuta dago Bidasoa ibaiaren banaketa-ubide guztietan arrantza egitea, Bertizko Jaurerriaren (Oronoz-Mugairi) zubitik beheiti.
- **Leurtzako urtegia**.
- **Domikoko urtegia**.
- **Endara/San Antón urtegia**.



- **Zia ibaia**: Santo Kristo zubitik, Illekueta auzoan, Bidasoa ibairainoko tartea.
- **Tximista ibaia**: Landaburuko eta Antsolketako presen arteko tartea.
- **Borda ibaia**: Ote kaleko zubitik Albistur kaleko zubirainoko tartea, Lesakan barrena.
- **Endara latsa**: Gipuzkoarekin muga egiten duen tarte guztia.

Debeku iraunkorreko tarteak

- **Ezkurra ibaia**: Eratsungo arrain-hazitegiaren presatik uretan gora dauden ibai guztia eta horren adarrak.
- **Ditxillu erreka**: ibai osoa eta ibaiadarrak.
- **Anizpe erreka**: ibai osoa eta ibaiadarrak.
- **Baztan ibaia**: Sastre errekarekiko elkargunetik gorako tartea Sastre erreka eta horren adarrak barne.
- **Iñarbegi erreka**: Gorostapaloko ur-jauzitik uretan gora dauden ibai guztia eta horren adarrak.
- **Elaputzu erreka**: ibai osoa eta horren adarrak.
- **Legarrea erreka**: ibai osoa eta horren adarrak.
- **Artzubi erreka**: ibai osoa eta horren adarrak.
- **Beartzun erreka**: Iruritabarren errekarekiko elkargunetik uretan gora dauden ibai guztia eta bere adarrak, Iruritabarren erreka eta haren adarrak barne.
- **Ballabarren erreka**: ibai osoa eta horren adarrak.
- **Arbutz erreka**: ibai osoa eta ibaiadarrak.
- **Aintsoro erreka**: Ibai guztia eta horren adarrak, eta oro har Bertizko Jaurerriaren barruko ur guztiak.
- **Marin erreka**: Libusko zentraletik uretan gora dauden ibai guztia eta horren adarrak.
- **Zeberia erreka**: Ibai guztia eta horren adarrak, Bidasoa ibaiarekin eta horren ibaiadarrekin bat egin dueneraino, Marin ibaia salbu.
- **Iruribieta erreka**: ibai osoa eta ibaiadarrak.
- **Mendaur erreka**: ibai osoa eta ibaiadarrak.
- **Arrata erreka**: Ibarlako zubitik uretan gora dauden ibai guztia eta horren adarrak.
- **Tximista erreka**: Arbozta errekarekiko elkargunetik uretan gora dauden ibai guztia eta horren adarrak, Arbozta erreka eta horren adarrak barne.

- **Onin erreka**: Arbozta errekarekiko elkargunetik uretan gora dauden ibai guztia eta horren adarrak, Arbozta erreka eta horren adarrak barne.
- **Zumeldi erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Ibardin erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Zalain erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Montoia erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Barraka erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Orabidea ibaia**: Bizubietatik (Indartea eta Sastrenea errekaren elkargunea) uretan gora dauden ur guztiak.
- **Aritzakun ibaia**: Maribeltzeneko bordaren presatik uretan gora dauden ibai guztia eta horren adarrak.

Arrantzako kirol-eremuak

- **Bertizarana-Bidasoa ibaia**: Bertizko zubitik Bidasoak Donez-teben Ezkurra ibaiarekin bat egiten duen tokirainoko tartea. Luzera: 5,6 km.
- **Baztan-Bidasoa ibaia:** Erratzuko zubitik NA-8307 errepideak Elbeten duen zubiraino. Luzera: 8,3 km.

Arrantzan ikasteko eskola

- **Ezkurra ibaia**: Donezteben, Ezkurra ibaiaren eta Ezpelura ibaiaren zubietatik Bidasoa ibaira isurtzen diren tokirainoko tartea. Luzera: 0,7 km.

Jaurtiketa praktiketarako eremua

- **Bidasoa ibaia**: Beran, Zia errekaren bukaeratik eta Berako San Martin presa zaharrako eraikinaren tartea.

  Luzera: 0,3 km.

  Apirilaren 1etik urriaren 31ra bitarte erabiltzen ahalko da eremu hori. Erabilitako aparailuek ezin izanen dute inola ere arrainak harrapatzeko amurik edo gailurik izan.

Salmonidoen goiko eremua

Ibilgu nagusia

- **Leitzaran ibaia**: Gorriztaran errekarekiko elkargunetik (hots, Leitzatik) Leitzaren eta Gipuzkoaren arteko mugaraino.
- **Urumea ibaia**: Goizuetako Rezola zentralaren hustubidetik Aranoren eta Gipuzkoaren arteko mugaraino.
- **Araxes ibaia**: Intza errekarekiko elkargunetik (hots, Betelutik) Gipuzkoarekiko mugaraino.

Bigarren mailako ibilgua

- **Araxes ibaia**: Intza errekarekiko elkargunetik (Betelu) uretan gorako tartea, baita Araxes ibaiarekin bat egiten duten ibai eta erreka guztiak ere.
- **Leitzaran ibaia**: Gorriztaran errekarekiko elkargunetik (Leitza) uretan gorako tartea, baita Leitzaran ibaiarekin bat egiten duten ibai eta erreka guztiak ere.
- **Urumea ibaia**: Goizuetako Rezola zentralaren hustubidetik uretan gorako tartea, baita Urumea ibaiarekin bat egiten duten ibai eta erreka guztiak ere.


Araubide bereziko urak

Aldi baterako debeku tarteak

- **Artikutzako urtegia**.
- **Añarbe ibaia**: Añarbeko uharkatik gora dauden ibai guztiak eta bere adarrak (urtegia barne).
- **Leitzaran ibaia**: Urtoko zubitik Plazaolako presaraino (Gipuzkoarekiko muga).

Debeku iraunkorreko tarteak

- **Araxes ibaia**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak Beteluko Irigoien auzoko zubitik uretan gora; Errazkin erreka salbu.
- **Uztegi erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Errekagorri erreka**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
- **Erasote erreka**: Plazaola zubitik uretan gora eta ibaiadar guztiak.
- **Gorriztaran erreka**: Plazaola zubitik uretan gora eta ibaiadar guztiak.
- **Astomela erreka**: Erasotik uretan gora eta ibaiadar guztiak.
- **Leitzalarrea erreka (Franki)**: hiru ibai-buruek bat egiten duten elkargunetik gorako ur guztiak.



- **Bedaran erreka**: iturburutik Leitzako zentraleraino eta erreka-adar guztiak.
- **Sarasain erreka**: Sarasaingo presatik gora dauden ibai-buruetako ur guztiak.
- **Zumarrezta erreka**: Onbordi errekarekiko elkargunetik uretan gorako tartea, Onbordi eta horren ibaiadarrak barne.
- **Neku, Alduntzin, Isillas, Urdallue, Erroiarri eta Buru-gorri errekak**: ibai osoa eta horren ibaiadarrak.
